

PROPORTZIONALTASUNA

1. ARIKETA: Adierazi ondoko magnitude-pareek zein erlazio mota daukaten: Zuzenki proportzionala (Z), Alderantziz proportzionala (A) edo Ez daukate erlaziorik (X).

a) Erositako olio botilen kopurua eta hauen prezioa.			
b) Langile kopurua eta lana bukatzeko behar duten denbora.			
c) Praka batzuen neurria eta prezioa			
d) Pertsona baten altuera eta pisua.			
e) Auto batek egiten duen distantzia eta denbora.			
f) Abiadura eta denbora			
g) Gela baten azalera eta leiho kopurua.			
h) Bonbila batek piztuta egiten duen denbora eta gastatzen duen energia.			
i) Etxalde batean dauden behien kopurua eta hauentzako janariak irauten duen denbora.			
j) Deposituaren edukiera eta berau betetzeko behar den denbora.			
k) Txorrota baten ur-emaria eta depositu bat betetzeko behar den denbora.			

2. ARIKETA: Lotu bakoitza dagokion magnitudearekin.

5 €	2 h	120 Km/h	5 min.	2 langile	7 baloi	10 L/min.	23 L	102 cm	12 Kg
-----	-----	----------	--------	-----------	---------	-----------	------	--------	-------

DENBORA	ABIADURA	KOPURUA	PREZIOA	EMARIA	LUZERA	PISUA	EDUKIERA
---------	----------	---------	---------	--------	--------	-------	----------

3. ARIKETA: Ebatzi proportzionaltasun problema hauek (lauki moreak betez):

a) Jostunak 10 botoi josten ditu 15 minututan. Zenbat botoi josiko ditu ordu betean?

DENBORA (min.)

BOTOI KOPURUA

x

proportzionala:

$$\frac{\boxed{}}{\boxed{}} = \frac{\boxed{}}{x} \rightarrow x = \frac{\boxed{} \cdot \boxed{}}{\boxed{}} = \boxed{}$$

ERANTZUNA: BOTOI

b) 4 km/h-ko abiaduran joanda 18 minututan egiten dut etxetik eskolarako bidea. Zenbat denbora beharko nuke 6 km/h-ko abiaduran joanez gero?

ABIADURA (km/h)

DENBORA (min)

x

proportzionala:

$$\frac{\boxed{}}{\boxed{}} = \frac{\boxed{}}{x} \rightarrow x = \frac{\boxed{} \cdot \boxed{}}{\boxed{}} = \boxed{}$$

ERANTZUNA: MINUTU